

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

3102

AGINDUA, 2018ko ekainaren 8koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez hasierako onarpena ematen baitzaio Valderejo, Sobron eta Arcenako mendilerroko eremuaren Natura Baliabideak Antolatzeko Planari eta jendaurrean jartzen baita.

2016ko abenduaren 1eko Aginduaren bidez, erabaki zen hasiera ematea Valderejo, Sobron eta Arcenako mendilerroko Natura Baliabideak Antolatzeko Plana onartzeko espedienteari.

Arabako Foru Aldundiak planaren gaineko txostena egin du, eta, gero, entzunaldi-izapidea ere bete du, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 7.b) artikulua betez.

Naturzaintza-Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko Aholku Kontseiluak 2018ko ekainaren 7an egindako deialdian, plan horren berri eman zen, eta onartu egin zen, 2018ko ekainaren 8an emandako txostenak egiaztatzen duenez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 7.c) artikulua ematen didan eskumena dela bide (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindua ematea hasierako onarpena eman dakion Valderejo, Sobron eta Arcenako mendilerroko eremuaren Natura Baliabideak Antolatzeko Planari.

Bigarrena.– Valderejo, Sobron eta Arcenako mendilerroko Parke Naturalaren Natura Baliabideak Antolatzeko Plana jendaurrean jartzea, 60 egunez, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Interesdunek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa (<https://euskadi.eus/natura>) kontsultatu ahal izango dute dokumentu hori.

Era berean, erakunde hauetan ere aztertu ahal izango da dokumentua:

– Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz.

– Gaubeako eta Lantaróngo udalerrriak.

Alegazioak, iradokizunak eta oharra, ahal dela, baliabide elektronikoen bidez bidaliko dira Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 8a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.